



MARTXOAK 8

**HAMAICA KULTURA ESKUBIDE
BERBERAK**



#Hamaika kultura eskubide berberak #martxoaren 8

Hamaika kultura eskubide berberak

Sarrera

Ikasturte honetako proposamena Martxoaren 8a¹, lantzeko genero eta kulturartekotasunari buruzko hausnarketa egitea da.

Hezkidetza-eskola eskola inklusiboaren printzipioetan oinarritzen da, elkarrizketan, elkartasunen eta kulturartekotasunean.

Hau lortzeko ikasleen prestakuntza integrala lortzera bideratutako aukerak landu behar dira, haren bidez identitate askeagoak, berdintasunezkoak, askotariokoak eta seguruak eratu ahal izateko eta desberdintasunen berdintasuna zein genero-indarkeriaren prebentzioa bermatzeko.

Hezkidetza-eskolak espektatiba handiko curriculometik abiatzen dira, eskolan arrakasta lor dezaten laguntzeko, inork ez dezan eskola goizegi utzi, eta genero-, gizarte-, kultura- eta etnia-oztopoak kenduz.

Hezkidetza-eskolak berdintasunezko harremanak sustatzen ditu, ikasleei abiapuntu hauek hartuta erlazionatzen irakatsiz: errespetua, konfiantza, elkarrizketa bidezko konponbidea gatazketan, ekitatea eta erantzukizun partekatua.

Eskola hauetako helburua da berdintasunezko kulturak sortzea, sozializaziotik sortzen diren genero-inposaketekin jarrera kritikoa dutenak.

Proposamenaren gaiari dagokionez, agerian geratzen da kultura guztietan diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak daudela. Hori dela eta oso garrantzitsua da programazioko arlo guztietan kultura guztietako emakumeen ekarpenak sartzeari, ikuspuntu ez androzentrikoa ez izatea, eta aniztasun kulturalak errekonozitzea. Beharrezkoa da kultura guztietako emakumeek giza jardueraren arlo guztietan izan dituzten ekarpenak ikustaraztea eta baloratzea: artean, teknologian, jakien kontserbazioan, filosofian, pertsonen zainketan, zientzian, literaturan, gobernuan.

Ezinbestekoa da sexismoari eta desberdintasunei buruz dauden zenbait aurreiritzi gainditu beharra planteatzea; esate baterako, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla pentsatzea, edo askapen-bideak arabiarren, musulmanen eta ijitoen kultura utzi beharra eskatzea, edo beloaren erabilpenari interpretazio bakarra ematea zapalkuntza ikurtzat joaz...

Debatea **kultura eta emakumeen elkartasunean** kokatu behar dugu eta ez kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak diren ala ez.

Hezkidetza-eskolek desberdintasun pertsonalak potentzialtasun bat bezala aurkezten dituzte, eta ez minusbaliotasun bat bezala (etnikoak, kulturalak, gaitasunak, adinak, jantzeko moduak...).

¹ Martxoaren 8aren jatorria, esanahia ez bada lan egin komenigarria da konpartitzea ikasleekin, ikakasleekin eta familiekin jardueraren bat ospakizuna ezagutzeko. Horretarako aurreko proposamenak erabil daiteke.

Era berean desberdintasun pertsonalak potentzialtasuna bezala eta ez minusbalioa izango balitz izango litzateke aurkeztu behar dira (etnikoak, kulturalak, ahalmenak| edukierak, adinak| aroak, janzteko formak| erak...)

PROPOSAMENA

Ikastetxeetan gogoeta lagun dezakeen jarduera bat proposatzen dugu, eta aipaturiko gogoetak balio dezala ekintza batzuk amankomunean jartzeko.

Beti ere ez dira proposamen itxiak ikasleak, ikastetxearen arabera egoki daitezke; hezkidetzaren ikastetxeko ibilbidea, IHP kontutan har daitezke.

Proposatutako jarduerak bi saiotan egiteko dira:

Tutoretza saioan jarduera bera garatuko da.

Martxoaren 8an hezitzaile komunitate osoak parte hartuko du ikastetxeko ekitaldian.

HELBURUAK

- Berdintasunaren aurrerapenak ospatu.
- Genero eta kulturartekotasunari buruzko hausnarketa egitea.
- Sexismoari eta desberdintasunei buruz dauden zenbait aurreiritzi gainditzea, hau da, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla.
- Kultura guztietako emakumeek giza jardueraren arlo guztietan izan dituzten ekarpenak ikustaraztea.
- Identitate askeagoak, berdintasunezkoak, askotarikoak eta seguruak aukerak garatzea eta desberdintasunen berdintasuna zein genero-indarkeriaren prebentzioa bermatzea.

EDUKINAK

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako 1. 2.3. eta 4.

Bi ipuin kontatu:

NAGADU
Iñaki Zubeldia
Gero Euskal liburuak

ADUNA ETA ADUANAK
Felipe Juaristi
Erein

- Genero eta kulturartekotasunaren inguruan hausnarketa egingo da zenbait aurreiritzi gainditzeko, esate baterako, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla pentsatzea.
- Ikastetxe hezkidetzaillea lortzeko jarduerak eta leloak jasoko dira.

Lehen Hezkuntzako 5.6. eta DBH

- Genero eta kulturartekotasunaren inguruan hausnarketa egingo da zenbait aurreiritzi gainditzeko, esate baterako, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla pentsatzea.
- Ikastetxe hezkidetzaillea lortzeko jarduerak eta leloak jasoko dira.

Familiak

- Genero eta kulturartekotasunaren inguruan hausnarketa egingo da zenbait aurreiritzi gainditzeko, esate baterako, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla pentsatzea.
- Ikastetxe hezkidetzaillea lortzeko jarduerak eta leloak jasoko dira.

Irakasleria

- Genero eta kulturartekotasunaren inguruan hausnarketa egingo da zenbait aurreiritzi gainditzeko, esate baterako, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla pentsatzea.
- Ikastetxe hezkidetzaillea lortzeko jarduerak eta leloak jasoko dira.

Ikastetxeko ekitaldia

- Esku handi baten marrazkia egingo da (edo ikastetxeak erabakitzen dena) eskuan hezkuntza komunitatearen lelo guztiak jarriko dituzte.



HAMAIKA

KULTURA ESKUBIDE BERBERA

IKASLERIA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. Eta 2. Mailak

1.- Tutoretza Saioa

Proposatzen da irakasleak **gaiaren aurkezpena** egitea galdera batzuen bidez:

- Norbaitek entzun du Martxoaren 8a ospatzen dela?
- Badakizue zergaitik ospatzen da Martxoak 8?

Bi ipuin kontatu:

NAGADU y ADUNA ETA ADUANAK

Galdera batzuk egin daitezke:

- *Saioaren hasieran komenigarria izango zen neskatilek hitz egin dezaten, eta jarraian mutilek...*
- *Ipuinean ikusi edo entzun dutena komentatu.*
- *Jolasten, jaten edo ikasten, hau da, gauzak beste kulturekin konparatuz beste modu batez egiten dituzte?*
- *Komentatu neskak etamutileen arteko jolasak, ohiturak ezberdintazunez.*
- *Leloa azpimarratu kultura guztiek eskubide berberak dituztela pentsatzeko.*
- *Nagadu ipuinean familian seme-alabaren artean diferentziak ikusten dira?*
- *Aduna eta Aduanak ipuinean kultura ezberdinei buruz agertzen diren elkarrizketak komentatu.*

2. Saioa: Martxoak 8

Ikasleek beren eskuak marraztu eta pintatuko dituzte (ideia berarekin eskuak ezberdinak baina eskuak)

Marraztutako eskuak ikastetxeko esku handian jarri.

Lehen Hezkuntzako 3. 4.

Gaia kokatzeko, irakasleak ikasleei galdetuko die ia dakiten Martxoak 8a ospatzen dela eta zergatik edo zertarako. Ia ados dauden ospakizun horrekin, ia beharrezkoa ikusten duten, ia benetan neska eta mutilen artean bereizkeriak ematen diren... Neska eta mutilen artean bereizketa horiek beste kultura batzuetan ematen dira...

Pentsatuko dugu ea kultura guztietan neska eta mutilen arteko desberdintasunak ematen diren.

Guk nola ospatuko dugun aurton azalduko diegu.

Irakurri edo kontatu bi ipuin:

NAGADU y ADUNA ETA ADUANAK

Galdera batzuk egin daitezke:

- *Saioaren hasieran komenigarria izango zen neskatilek hitz egin dezaten, eta jarraian mutilek...*
- *Ipuinean ikusi edo entzun dutena komentatu.*
- *Jolasten, jaten edo ikasten, hau da, gauzak beste kulturekin konparatuz beste modu batez egiten dituzte?*
- *Komentatu neskak etamutilen arteko jolasak, ohiturak ezberdintazunez.*
- *Leloa azpimarratu kultura guztiak eskubide berberak dituztela pentsatzeko.*
- *Nagadu ipuinean familian seme-alabaren artean diferentziak ikusten dira?*
- *Aduna eta Aduanak ipuinean kultura ezberdinei buruz agertzen diren elkarrizketak komentatu.*

Ikasle bakoitzak jarduerak proposatuko ditu ikastetxe hezkidetzaillea lortzeko. Gelan jarduera bat adostuko da berdintasunezko batzordeari proposatzeko eta honek hezkidetzaren planeari jar dezan.

2.- Saioa: Martxoak 8

Pentsarutako jarduekin bat egiteko leloak pentsatuko dituzte ikasleek eta koloretako eskuan idatziko dituzte eta ikastetxeko ESKU HANDIAN jarriko dituzte.

Lehen Hezkuntzako 5.6. eta DBH

1.- Tutoreza Saioa

Gaia kokatzeko, irakasleak ikasleei galdetuko die ia dakiten Martxoak 8a ospatzen dela eta zergaitik edo zertarako. Ia ados dauden ospakizun horrekin, ia beharrezkoa ikusten duten, ia benetan neska eta mutilen artean bereizkeriak ematen diren... Neska eta mutilen artean bereizketa horiek beste kultura batzuetan ematen dira...

Guk nola ospatuko dugun aurton azalduko diegu:

Bideo bat ikusiko dugu eta bertan gertatzen denaz eztabaidatuko dugu eta guri gertatzen zaigunarekin erkatuko dugu.

Bideoa ikusi

https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwjuvN3nzt_QAhUlrRQKHTr0CJQQ3ywIGTAA&url=https%3A%2F%2Fwww.youtube.com%2Fwatch%3Fv%3D1OTcXyEhr_o&usg=AFQjCNF9DhG_X-cAP05rdD1AlsKIZo-6gg

Bideoa ikusi

<https://youtu.be/RKVOi97yZaE>

Debatea galdera batzuen bidez egin daitezke:

- *Gizartean neskek eta mutilak, gizon eta emakumeak kultura guztietan berdina direla uste dugu?*
- *Guk ere pentsatzen dugu kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla?*
- *Zer aldatu behar izango litzateke?*
- *Zein jarrerak aldatu behar dira?*
- *Kultura batek besteei esan behar die nola lortu behar dute berdintasuna?*
- *Gure ikastetxean bideoan ikusitakoa gertatzen da?*
- *Kultura guztietan berdintasuna al dago?*
- *Gauza ezberdinak egiten ditugu neska eta mutilek?*

Sarreran agertzen diren datuak tutoreak gaineratu ditzake.

2.- Saioa: Martxoak 8

Denon artean komentatuko dugu nolako ikastetxea gustatuko litzaiguke izatea eta norberak jarduera bat proposatuko du ikastetxea berdintasunezkoagoa izatea. Gelak jarduera bat adostuko du hezkidetza batzordeak ikastetxeko hezkidetza-planan sartzeko.

Leloak ere pentsatuko ditugu, eta gela bakoitzak leloa eta jarduera idatziko ditu koloretako esku batean. Martxoak 8an KOLORETAKO ESKU HANDIAN eskegiko ditugu koloretako esku guztiak.

IRAKASLERIA

Sexiamoari eta desberdintasunei buruz dauden zenbait aurreiritzi gainditu beharra hausnartzea, hau da, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla. Era berean, ikasleen prestakuntza integrala lortzera bideratutako aukerak landu, eta haren bidez identitate askeagoak, berdintasunezkoak, askotariokoak eta seguruak eratu ahal izateko.

Bideo bi ikusiko dugu eta bertan gertatzen denaz eztabaidatuko dugu eta guri gertatzen zaigunarekin erkatuko dugu. Gero, denon artean komentatuko dugu nolako ikastetxea gustatuko litzaiguke izatea eta norberak jarduera bat proposatuko du ikastetxea berdintasunezkoagoa izatea. Irakasleriak jarduera bat adostuko du hezkidetzaz batzordeak ikastetxeko hezkidetzaz planan sartzeko. Leloak ere pentsatuko ditugu, eta bakoitzak leloa eta jarduera idatziko ditu koloretako esku batean. Martxoak 8an KOLORETAKO ESKU HANDIAN eskegiko ditugu koloretako esku guztiak.

Bideoa ikusi:

https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwjuvN3nzt_QAhUIrRQKHTr0CJQQ3ywIGTAA&url=https%3A%2F%2Fwww.youtube.com%2Fwatch%3Fv%3D1OTcXyEhr_o&usg=AFQjCNF9DhG_X-cAP05rdD1AlsKIZo-6gg

Bideoa ikusi:

<https://youtu.be/RKVOi97yZaE>

FAMILIAK

Sexiamoari eta desberdintasunei buruz dauden zenbait aurreiritzi gainditu beharra hausnartzea, hau da, kultura batzuk beste batzuk baino berdintasunezkoagoak direla. Era berean, ikasleen prestakuntza integrala lortzera bideratutako aukerak landu, eta haren bidez identitate askeagoak, berdintasunezkoak, askotariokoak eta seguruak eratu ahal izateko.

Bideo bi ikusiko dugu eta bertan gertatzen denaz eztabaidatuko dugu eta guri gertatzen zaigunarekin erkatuko dugu. Gero, denon artean komentatuko dugu nolako ikastetxea gustatuko litzaiguke izatea eta norberak jarduera bat proposatuko du ikastetxea berdintasunezkoagoa izatea. Familiek jarduera bat adostuko dute hezkidetzaz batzordeak ikastetxeko hezkidetzaz planan sartzeko. Leloak ere pentsatuko ditugu, eta bakoitzak leloa eta jarduera idatziko ditu koloretako esku batean. Martxoak 8an KOLORETAKO ESKU HANDIAN eskegiko ditugu koloretako esku guztiak.

Bideoa ikusi:

https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwjuvN3nzt_QAhUlrRQKHTr0CJQQ3ywIGTAA&url=https%3A%2F%2Fwww.youtube.com%2Fwatch%3Fv%3D1OTcXyEhr_o&usg=AFQjCNF9DhG_X-cAP05rdD1AlsKIZo-6gg

Bideoa ikusi:

<https://youtu.be/RKVOi97yZaE>

IKASTETXEKO EKITALDIA

Martxoak 8

- Koloretako esku handi bat egingo da eta horren irudian komunitate osoaren leloak eskegiko dira.
- Lema guztiei argazkiak atera eta partekatu eskolako giza sareen bidez: twiter...
- Ikastetxeko ekitaldiaren argazkia.



HAMAIKA

KULTURA ESKUBIDE BERBERAK